

# Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

2013/5/24 | 384

🌀 Joxe Agustin Arrieta eta Antton Izagirre

🌀 UEMA eguna: aire berria euskarari

🌀 Gazteluko haurrak jolas-gune eske

🌀 Kristalezko begi bat. Miren Agur Meabe

🌀 Hausnarketa erakusketak protagonista



## Madriren eta Estrasburgon politikagintzan

🌀 Juanjo Ruiz eta Idoia Lahidalgarekin solasean

**Beti dago lehen aldi bat edozertarako...**

Bizikleta gaineke lehen abenturarako. Eta askoz gauza gehiagotarako ere bai; erosketa supermerkatuara joan gabe egiteko, adibidez. Iritsi zaizu EROSKI online estreinatzeke unea. Eta lehen aldia duzula ospatzeko,

**10€**

oparituko dizkizugu online egindako lehenbiziko erosketan.

EROSKI online Supermerkatuan 80 €-tik

**Matrikulazio epea**  
Maiatzaren 2tik 14ra;  
**Ate irekiak:**  
Maiatzaren 2an 17:30ean Usabalgo Areto nagusian

eroski.es

TOLOSAKO INMAKULADA IKASTETXEA

AGNOR Eusko Jaurlaritzaren Logoak

ERKIDE

**Heziketa Zikloak**

<b>Goi maila</b>	<b>Erdi maila</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Gizarte Integrazioa</li> <li>Haur Hezkuntza</li> <li>Osasun Dokumentazioa</li> <li>Diagnosi Irudia</li> <li>Erradioterapia</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Erizaintza laguntzailea</li> <li>Farmazia teknikaria</li> </ul> <p>Formazio berritzailea eta kalitatezkoa</p>

**Aurrematrikulak**  
Maiatzak 27tik Ekainak 7ra

943 67 36 29 [www.inmakuladatolosa.com](http://www.inmakuladatolosa.com)

**galtzaundi**  
Euskara Taldea

Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea. 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
943 655 004  
Faxa: 943 654 983  
e-posta: [erredakzioa@galtzaundi.com](mailto:erredakzioa@galtzaundi.com)  
Webgunea: [www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com)  
Kordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.  
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Eneritz Iraola, Josu Iztueta, Txarli Gesteira, Aritz Larreta, Begoña Aristi eta Zigor Agirrezabala

Publizitatea: Bidera Publizitatea  
661 678 818 • [aetxaniz@bidera.eu](mailto:aetxaniz@bidera.eu)

Banatzaileak: Olatz Garmendia, Juankar Arregi

Zuzentzailea: Nora Olano  
Maketazioa: Galtzaundi  
Diseinua: Zigor Agirrezabala

Azala: Galtzaundi  
Inprimategia: Antza.  
Tirada: 4.500 ale  
Lege gordailua: 55-906/91  
Frankeo Itundua: 37/94

GALTZAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOLOSAKO UDALA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAIA

Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa

**kutxa gizarte ekintza**

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren, Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura eta Euskara Sailaren, Kutxa Fundazioaren, Tolosako Udalaren eta Tolosaldeko hainbat Udalen laguntza jaso du.

Galtzaundin azaldutako iragarleek diruz lagundu dute argitalpena.



**Erreportaia: Madrilen eta Estrasburgon politikagintzan**

Amalur Mendizabal, Jokin Bildarratz eta Iñaki Irazabalbeitia elkarrizketatu ditu Galtzaundik. Hurrenez hurren, Madrilako senatuan Amañur eta EAJko senatariak eta Estrasburgon Aralarreko ordezkaria dira. Europaren etorkizuna, krisia eta Euskal Herria izan dituzte, besteak beste, hizpide.

8-11. orrialdeak

Galtzaundi Tolosa&Co-rekin elkarlanean Tolosako 37 tabernetan euskaren erabileran eragin asmoz lanketa egin du. Euskarak Tolosako denda eta tabernetan eskaintzen duen balio erantsiaz, 3. sektorearen egoeraz eta beste hainbat gaiez mintzatu dira Idoia Lahidalga –Galtzaundi Euskara Taldea- eta Juanjo Ruiz –Tolosa&Co-.

Elkarrizketa: Juanjo Ruiz eta Idoia Lahidalga 14-16. orrialdeak

🌀	Iritziaren leihoa: Joxe Agustin Arrieta eta Antton Izagirre	4-5
🌀	UEMA eguna: aire berria euskarari	7
🌀	Gazteluko haurrak jolas-gune eske	12-13
🌀	Irakurlearen begietatik : Kristalezko begi bat. Miren Agur Meabe	17
🌀	Hausnarketa erakusketak protagonista Aranburu Jauregian	18-19

## Bizitzari kalitatea eman



Joxe Agustin Arrieta Egiguren  
Irakaslea

Ez da erraza kalitatez bizitzea. Gutxiago berriz garai aldi honetan. Hitzetik hortzera, bazter batetik bestera zoritxarreko "krisia" hitza eta errealitatea entzun, ikusi eta haragian sumatzen dugu.

Baina kalitate honek badu iturri berezi bat: zentzua, bizipoza, espiritua... Zer ematen du espiritua? Lehenengoz sentidua eman bizitzari; bigarrenez, balio-sistema gizalege-  
-tu eta hirugarrenez, betetasuna eta osotasuna eskaini.

Beste hitzetan honako hau esan beharko: bizitzeko kanpoa eta barrua berdindu behar. Gaur zoritxarrez, gizatasunak badu defizit handia, gure gizartean gizatasun-  
-eskasia nabarmena daukagu. Badakigu gizarteko giroak eta ekonomia-  
-aren eta politika-  
-aren ikaragarriak beste hauei garrantzia ematen diotela: audientzia, botoen goratzea,

irabaztea...baina dena hori al da? Bihotza ez ote zaigu txiki geratu?

Garai aldi zailtan sartu gara. Ezin ahaztu berdintasun bideak goratzeko ahaleginean jarraitu behar dugula, txiki-  
-kiko solidaritatea bultzatzen aurrera egin behar dugula, eta hainbeste jende bakarti eta larri dagoen inguruan egoten jarraitu behar dugula. Egia da bizitza luzatu dugula. Urtetan aurrera egiten dugula; baina, bizitzen ikasten ez bada, zertarako bizi gehiago? Buru handia baina bihotz txikia duten geroa ahalbideratzen badugu, ez gabilta ondo.

Erronka asko dira egunero

gure gain hartu behar ditugunak. Nik premia-  
-zkoenak aukeratu ditut, konbentzituta bainago giza duintasunarekin zerikusia daukan edozerk zer-  
-bait handia eta sakratua dela. Hala ere erronka hauek azpi-  
-marratuko nituzke:

1. **Eraberritu oraina.** Etorki-  
-zunari begira, zure ekarpenik garrantzitsuena pertsonari eta bere egitekoari buruz zuk duzun ikuspegia da. Egizu lan jo eta ke, **gizaki bakoitza giza duintasunez bizitzera hel da-  
-din**, zapalkuntza eta injustizia guztietatik aske.


2. Baina, **bidegabekeriak salatzea ez da nahikoa: justiziaren lekukoa eta eragilea izatea eskatzen zaizu, bakearen sortzailea**; hau da, politikan, gizartean, kulturean eta sindikalgintzan hartutako konpromisoetan sendo mantentzea, tirabira handien er-  
-dian ere bakearen testigantza eskainiz.

3. **Eraiki ezazu mundu zu-  
-zenagoa**, besteak beste, puntu hauetan saiatuz: ez dadila gaizki elikatutako edota he-  
-ziketa egoki gabeko umerik egon; ez dadila gaizki tratatu-  
-tako langilerik egon eta, beste nonbaitekoa izateagatik, inoren eskubiderik ez dadila murriztu; estatuak berak edo pertsona batek beste bat esplotatzea ahalbideratzen duen sistemarik ez dadila egon; ez dadila egon soberan eta batzuei daukanik, beste batzuei, inolako arrazoirik gabe, dena falta zaienean; ez dadila egon desberdintasunik, jus-

tizia banatzerakoan; indarra ez dadila egiaren edo esku-  
-bidearen gainetik gailendu; maila ekonomikoa edo politikoa ez dadila egon gizatasun mailaren gainetik...

4. Aurkitzen dituzun era-  
-gozpenek eta desorekek ez zaitzatela ezkor bihurtu. Hori bai, eramazu bihotzean eta ezpainetan **itxaropenez be-  
-tetako mezua**. Itxaropen hau agintzaririk handienetara ire-  
-kitako itxaropena da. Izan gaitzen utopikoak eta uste izan azkenean itxaropena garaile aterako dela.

5. Ahalegindu zaitzez zure ga-  
-raiko gizon-emakumeen oina-  
-zeekin eta pozeekin bat egiten, gizarte zuzenago, askeago eta solidarioago bat lortzen, utopia eta itxaropena duten-  
-gandik gertuago egoten.

6. "Mundu berri" bat itxa-  
-rotan duzulako, ezin duzu mundu berekoi eta gezurti bat onartu, gorrotoz, injustiziaz eta oinazez bete. Presta ezazu justiziaren eta berdintasunaren bidea, harroke-  
-riatik umiltasunera pasatuz, zikoizkeriatik eskuzabaltasunera, haserretik eta amorrutik pazientziara, lizunkeriatik askatasunera, berekoikeriatik maitasunera; hau da, **eraiki dezagun "persona berria", zerbitzaria, solidarioa, aske-  
-a, ausarta, konprometitua, bakezalea, besteiei emana...** Hemendik ote dabil "Q" kalitate-  
-a? Ez ahaztu idazlanaren izenburuarekin eta izan gaitzen kalitate jator honen me-  
-zulari eta testigu. 

## Kontaketa aldeaniztunak

Hizlarien aldetik, gertaera haiek eman zirenetik ia gaur arte ezarri den isiltasun legea tamalgarrizat jo zen; gertaera haien gainean lurra bota, fusilatutako gorpuak izenik gabe lurperatuak izan ziren bezala, haien oroitzapena ere isilarazi zen. Berandu iritsi bada ere merezitakoa oroigarria eta gertaturiko injustizien aitortza. Hirurogeita hamabost urte pasa behar izan dute.

Gerra garaiko eta ondorengo urteetako gertakizunen kontakizunak badu amaiera data. Hala ere, errelatoaren arduradunek adierazi modura, hirurogeiko hamarkadan hasi eta gaur egun oraino amaierarik ez duen gatazkak Tolosako herritarrengan izan dituen ondorioak aztertze-  
-ko proposamena zabalik geratu da. Azken berrogeita hamar urteotako gertakarien kontakizunak, beste hain-  
-beste urte itxoin behar ote du egiari zor zaion fidelitasunez kontatua izan dadin? Luzatu zuten galderak izango al du erantzunik.

Beti pentsatu izan dugu historia-  
-ren kontaketa ez dela sekula neutra-  
-la izan eta zaila izango dela aurreran-  
-tzean ere, azken berrogeita hamar urteotan gertatutakoaren gaineko errelato bakarra egitea. Denborare-  
-kin, kontatu izan diguten historia ofi-  
-ziala irabazleek idatzitakoa izan zela jakin dugu. Gertaera bera bi aldeta-  
-koek bizi izan duten neurrian, modu eta bizipen desberdinak eraginda kontatu daitezkeela. Gertaera berak ertz asko eta anitzak ditu. Beraz, ez litzateke ona, ez benetakoa ertz bakar batetik soilik edo ertz bakarren bat saihestuta gertaturikoaren historia kontatuko balitz. Beste kontua da, prest ote dagoen gure gizartea, gu gaur, eta kontaktetan eragin zuzena pairatu eta eragin duten alde guztiak



Antton Izagirre  
Irakaslea

Aurtengo apirilean, Tolosan, Errepublika egunaren ospakizunen testuinguruan egin diren ekitaldien artean, gerra garaian eta ondorengo urtetan errepresaliatuak izan ziren gizon eta emakumeen oroitzapen modura, Aranzadiren ardurapean argitaratu den liburuaren aurkezpena egin zen eta horren harira ihesean joan behar izan zuten udal ordezkariak ekarri ziren gogora.

aldeaniztuneko kontaktari heltze-  
-ko. Agian oraindik ez, baina berandu baino lehen beharko luke.

Gaurko eta ondorengo belaunaldi gazteenei kontaketa ezkatzea ez litzateke ona; beste aldera begiratu eta abiada bizian jarraitu, kontaketa jabetzeko parada eskaini gabe.


Azken urteotan Euskal Herrian, ba-  
-kerako aukerak zabaltzen ari direna-  
-ren zantzuak indartu egin dira. Indar-  
-keriazko egoerak baztertu eta elkar ulertzeko prozesuak indartu direna-  
-ren pertzepzioa dugu baina aukerak eskura izan arren zaila gertatzen ari da urrats erabakigarriak gauzatzea. Edonor jabetzen da zer nolako ozai-  
-topo politikoak dauden bake proze-  
-suan aurrera egiteko eta akordio bi-  
-deak eraikitzeko. Ez dirudi zaila baina borondate eza agerikoa da.

Hala ere, eragile politikoen espa-  
-rruetatik harago badira elkarbizitza-  
-rako bestelakoak; hau da, gu guztiok herri komunitate honetako giza-  
-bako gisa, eragile aktibo, iritzi emaila eta pentsamendu sortzaile egiten gaituztenak. Uste baldin badugu gertuko komunitate honek bakeari, elkarbizitzari, adiskidetzeari aukera bat ematea merezi duela, abagune aproposa izan daiteke zeregin horre-  
-tan engeizatzeko.

Urte luze hauetan mota desber-  
-dinetako indarkeria egoerak, giza eskubideen urraketa, besteak uler-  
-tu ezin, inkomunikazioak, desber-  
-dintasun politikotik eraikitako etsai-  
-goak... Konfrontazio estrategiaren adierazleak guztiak, belaunaldiak markatu dituzten ezaugarriak izan dira. Hausartu behar dugu harre-

man mota horiek guztiak, portaerak, interesak, jarrerak, hizkerak eta dis-  
-kurtsuak eraldatzeko beharra dugu-  
-la, baldin eta elkarbizitzari ekarpen esanguratsua egin nahi badiogu.

Desberdinen arteko elkarbizitza eta elkarrengaineko bitarteko egokia izan daiteke etendako konfiantzak berrezartzen hasteko; ez noski inork bereari uko egin diezaion eskatzeko, bestearengatik ezagutu eta, desadostasunetik bada ere, errespetua erakusteko.

Beharbada, giza duintasuna eta giza eskubideen printzipioei zor zaien errespetuan oinarritutako anitzen arteko elkarbizitza-  
-tari ekiteko gai izango bagina, gertaturikoaren aldeaniztuneko errelatoa egiteko aukera egongo litzateke. 



# UEMA eguna: aire berria euskarari

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea da UEMA. Tolosaldeko Aduna, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Elduain, Gaztelu, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa eta aurten sartu berri den Tolosa udalerrria mankomunitatearen parte dira. Urtero udalerrri euskaldunen UEMA eguna ospakizun bihurtzen da eta aurtengoan Aramaiori egokitu zaio festaren kokaleku izatea. Aitzaki hau hartuta UEMAren inguruko jakingarri batzuk gogoratzeko eta Tolosaldeko herritarrak Aramaiora gonbidatzeko bidea dira ondorengo lerroak.



urtea izan da Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearentzat. Izan ere, Tolosarekin batera Zarautz, Lesaka, Lekeitio edo Munitibar besteak beste, UEMA kide bihurtu berri dira.

## Izana

Mankomunitatearen izenak berak nahiko garbi erakusten du izana. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea, alegia. Herri euskaldunak elkartzen dituen erakundea da, baina euskaldun izateaz gainera, euskaraz bizitzeko asmo argia duten herriak biltzen ditu. UEMA n sartzeara funtzionamendua euskaldun-tzeko konpromisoa hartu dute, eta baita herriko eguneroko bizitzan euskararen erabilera sustatzeko konpromisoa ere, herri-tarrak euskaraz normaltasunez bizitzeko modua izan dezaten. Hori baita, UEMAren funtsa.

Mankomunitateak 22 urte-

ko ibilbidea du. 1988. urtean Euskal Herrian Euskaraz-ek aurkeztutako mozio baten inguruan hasi zen mugimendua, eta Mankomunitatea bera 1991. urtean eratu zen. Egun 70 udal-etik gora biltzen dituen Mankomunitatea bihurtu da. Herri hauek euskararen arnasmuneak bihurtuz. Euskaraz arnasa hartzen du bertan, eta euskarari arnasa ematen diote herri horiek. Aramaio, Tolosaldeko aipatu herriak bezala, mugimendu horren parte dira.

## Kideak

Hauek dira gaur egun UEMA n sartuta dauden herriak:

- Arabak:** Aramaio
- Bizkaian:** Bermeo, Busturia, Ajangiz, Muxika, Gatika, Aulesti, Amoroto, Gizaburuaga, Berriatua, Lekeitio, Mallabia, Mañaria, Munitibar, Atxondo, Izurtza, Otxandio, Ondarroa eta Artea.
- Gipuzkoan:** Aduna, Aizar-

nazabal, Alegia, Altxaga, Altzo, Amezketa, Anoeta, Antzuola, Arama, Azpeitia, Baliarrain, Beizama, Belauntza, Bergara, Deba, Elduain, Elgeta, Ezkio-Itsaso, Gaintza, Gaztelu, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Leaburu-Txarama, Lizartza, Mutriku, Oñati, Oizartzun, Orendain, Orexa, Orio, Tolosa, Usurbil, Zaldibia, Zarautz, Zestoa eta Zumaia.

**Nafarroan:** Araitz, Arantza, Arbizu, Areso, Besaburua, Bera, Etxalar, Etxarri Aranatz, Goizuetta, Igantzi, Larraun, Leitza, Lesaka eta Urdiain.

Gauzak ongi joanez geroz, Mankomunitateak hazten jarraituko du, eta euskararen lurraldea osatuz eta sendotuz joango da. Euskararen etorkizuna ziurtatuko bada, ezinbestekoa da herri euskaldun horiek guztiak elkartzea, bizi-rik mantentzea, eta euskararen arnasmune sendo bihurtzea. Ahalegin horretan ari da UEMA, hain zuzen ere, baita Aramaio-ko herria ere, UEMA egunaren kokalekua, eta apustu horretan bat egingo dute herriko eragile eta herritar guztiak. Hori guztia ezagutzera emateko eta indartzeko, hain zuzen ere, ospatzen da urtero UEMA eguna. Aurten, esan bezala, Aramaion egingo da, ekainaren 8an, eta hau da egun horri begira Aramaion sortu den lantaldeak prestatu duen egitaraua:



## UEMA Eguna, Aramaio Ekainak 8

- 11.30 Egunari hasiera emateko** suzuria eta kalejira trikitilari eta dantzariekin
- Goizean zehar** Haurrentzako puzgarriak, artisau azoka, talogileak eta sagardo salmenta
- 12.00 Herri kirol lehia:** Goizuetta-Aramaio
- 13.00 Ekitaldia plazan** (herriko abesbatzak eta bertsoariak hartuko dute parte)
- 14.00 Herri bazkaria**
- 16.30 Ane eta Piratak Parrrandan!** Irrien Lagunen ikuskizuna
- 18.30 Erromeria:** Zesuma taldea
- 22.00 Kontzertuak**



**Aretxe**  
LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.  
Lorategi lanabesak.  
Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -  
Tel: 943 673 118 Tolosa

**jare**  
PSIKOLOGIA ZENTRUA

**AMAIA PEREZ**  
zbia. GZ.1919

Senpere kalea, 7  
20200 Beasain  
Tel. 675 634 329

Errotulazioa & inudia  
**Vicente**  
www.rotulosvicente.com

943 69 02 94  
taller@rotulosvicente.com  
Lasibar biala 25, 1-04 atea  
20271 Irua (Gipuzkoa)

# 8 Madrilen eta Estrasburgon politikagintzan

Amalur Mendizabal, Jokin Bildarratz eta Iñaki Irazabalbeitia elkarrizketatu ditu Galtzaundik. Hurrenez hurren, Madrileko senatuan Amaiur eta EAJko senatariak eta Estrasburgon Aralarreko ordezkaria dira. Europaren etorkizuna, krisia eta Euskal Herria izan dituzte, besteak beste, hizpide.

Felix Aiestaran / Igor Mujika

**Politika eta agintea. Zertan dantz politikaren errotika?**

**I. Irazabalbeitia:** Bi urte darrazkit agintean. Euskadiko Ezkerran eta Aralarren, baseko eta oposizioko lanak egiten aritu naiz.

**J. Bildarratz:** Oposizioan egonik ere eragiteko aukera izaten da.

**A. Mendizabal:** Etxe kalera-tzeen inguruko 6 orduko eztabaida izan berri dugu senatuan eta dei ugari jaso genituen izan genuen parte hartzearen-gatik zorianak emanez.

**Herritarrek politikarekiko eta politikarekiko kontrol gehiago eskatzen al dute?**

**A. Mendizabal:** Herritarrek

politikarienganako pertzepzio txarra du.

**I. Irazabalbeitia:** Politikaren aurkako oso diskurtso arriskutsua dabil: politikak ez du ezertarako balio, politikariak murriztu egin behar dira,... Normalean, eskuindarrak izaten dira diskurtso hori elikatzen dutenak, oposizioa gaine-tik kendu nahi dutelako.

**Euskal Herriko konstituzioa idazteko aukera izango baze-nute, herritarren parte hartze-ari eta hauteskunde ereduari dagokionean, zein aukeraren aldeko apustua egingo zenu-kete?**

**J. Bildarratz:** Jendea aukera-tzeko moduari dagokionean,

Madrileko Autonomia Erkide-goan egin behar dutena azter-tzekoa da. Heren bat zuzenean aukeratuko dute eta, gainera, barruti bateko ordezkariak izango dira. Alkate batekin gertatzen denaren parekoa da. Edozein alderditakoa izanik ere, nire herriko alkatea da eta niri erantzun egin behar dit. Herritarren parte hartze-ari dagokionean, Espainian milioi eta erdi sinadura behar dira herritarrek lege proiektu bat proposatzeko eta, hori, astake-ria bat da. Ahalik eta parte har-tzerik handiena lortzeko bidea aurkitu beharko genuke.

**I. Irazabalbeitia:** Aukeraketa sistemari dagokionean, zerren-da itxiak eta obligatuak ez dira

onak. Zerrendak osatzerakoan, alderdi barruko orekei egiten zaie men. Gainera, hautatua partiduaren diktatuen gatibu izaten da. Zerrenda irekiak nahiago ditut.

Parte hartze-ari dagokio-nean, Suitzako eta Kortsikako ereduak oso kontuan har-tzekoak dira. Zerbait erabaki behar denean, kantoitxiki-etan batzar irekiak egiten dituzte. Herritarrei galdetze-ari ez zaio beldurrik izan behar eta, her-ritarren iritzia, azken eraba-kian nolabaiteko eragina izan behar du.

**A. Mendizabal:** Herritarrei zerbaiten parte direla sentia-razi behar zaie. Kanpainan her-ritarren bozgoragailu izango ginela esan genuen eta, landu beharreko gaiaren arabera, gai horretan zer esana dutenen-gana jotzen dugu iritzi eske.

**Lobbyek zenbateko eragina dute politikan?**

**I. Irazabalbeitia:** Lobby askok proposamenak eta emen-dakinak errekdaturatu ematen dituzte. Europako parlamen-tuan lobbyek duten indarra arazo handia da. Parlamentuak Europak jarraitu beharreko no-rabidea zehazten du. Ondorioz, energia nuklearrean edo berriztagarrian inbertitu behar dela esateak, ondorio ekono-miko handiak izan ditzake Europan.

**J. Bildarratz:** Senatari- enpresetan praktikak egiteko aukera eskaintzen zaie. Nor-

berarentzako ona da, lehen mailako enpresak ezagutzen dituelako: Iberdrola, Vodafone, ... Enpresek harreman zuzena izaten dute senatariekin eta, beraien alorreko legeak proposatzerakoan, eragiteko nahia izan dezakete.

**ETAk bere jarduera amaitu izanak, zer nolako sentsazioak eragin ditu Madrilen eta Estrasburgon?**

**I. Irazabalbeitia:** Europak badu bere tokia bake prozesu honetan eta laguntzaile izan beharko luke. Irlandan, esaterako, Peace programaren bidez ari da laguntzen. Egun, Friendship taldea ari da Euskal Herriko prozesuaren aldeko proposamenak luzatzen. Bertan, europarlamentari kortsikarrak, galesak, flamen-koak, ... daude. Orokorrean, ordea, nahiko jarrera hotza dago. Aurreko su etenean esperantza bat sortu zen eta Europarlamentuak konpon-bide demokratikoaren aldeko proposamena onartu zuen. Su etenaren amaierarekin, ordea, esperantza hori eten egin zen.

**J. Bildarratz:** Bi mundu guz-tiz ezberdin dira hemengo eta Madrilekoa. Han ez da ulertzen hemen gertatzen ari dena. Al-derdi bezala, hango gure jar-duerakin hemen garatzen ari den prozesuarekiko interferen-tziarik ez sortzea erabaki dugu. Gure zeregina, hemen lortzen diren akordio txikiak hara era-matea izango da.

**Europako Tortura Prebentzio-rako Batzordeak 2011n Guardia Zibilak Beatriz Etxeberria torturatu egin zuela jaso du. Torturaz hitz egiten al da? eta, Parot doktrina moduan ezagu-tzen denaz?**

**I. Irazabalbeitia:** Parlamen-tari lagunek, parlamentuan galderak luzatu eta prentsa-ur-rekoak eskaintzen dituzte. Gehiago egitea, zaila da. Ga-tatzaren inguruan kanpoan saldu duten irudiak asko era-giten du. Konfiantzak irabazi egin beharko ditugu.

**J. Bildarratz:** Parot doktrina-rekin zer gertatzen den ikusi arte, Madrilek espetxe politi-kan mugimendurik ez duela egingo uste dut. Europako le-gedia berdintzera doa. Espai-niako Gobernuaren aurkako jarrera ateratzea espero dut baino, aterako ez balitz ere, Madrileko Gobernuari gehien kezkatzen diona doktrina ho-rrek etorkizunik ez duela da.

**A. Mendizabal:** Europako batzordeak egindako txoste-naren inguruko galdera luzatu zion gure taldeko Iñaki Goioa-gak Raxoiri. Espainiako tribu-nalek halakorik esan ez dute-lako, Espainian ez dela tortura existitzen erantzun zion Ra-xoik. Goioagak gogorarazi zion Europatik hiru kondena jaso dituela Espainiak, ... Izuga-rria da. Pasilloetan gerturatzen zaizkigu beste legebiltzarki-deak eta, andaluziar batek, esaterako, beste trantsizio bat behar dugula esan zidan.

**ZALBIDE**  
Tolare Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan.  
Ostirala, larunbata eta igande  
eguerditan irekita, iluntzetan  
egunero.

Zalbide baserria - Abaltzisketa  
Tel: 943 652 176



**SANTAMARIA**  
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketak.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610  
TOLOSA



**J. San Sebastian**  
MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

Perfilak




**Iñaki Irazabalbeitia:**

“Ez dut nahi nire semeek nik ezagutu dudana ezagutzea, hausnartu nuen eta, Aralarrek bakarrik joatea erabakitzen zuenean, deitzeko esan nion Patxi Zabaleteri”. Alkizan bizi da eta, abuztuan, 56 urte egingo ditu.



**Amalur Mendizabal:**

“Ezker Abertzaleetik nator. Nahiko modu asanblearioan funtzionatzen dugu eta senatuko zerrendan joatea proposatu zidaten. Konturutzerako, Madril en-nengo”. Amaiur koalizioko senataria da. Anoetan bizi da eta 34 urte ditu.



**Jokin Bildarratz:**

“Gauzak aldatzeko nahiak eta 1993an Gipuzkoan alderdi sozialistak irabazi izanak bultzatu ninduten EAJ-n afiliatzeratza”. Euzko Abertzaleak taldeko bozeramailea da. Tolosan bizi da eta 50 urte ditu.

lakoak dira: nazioarteko terrorismoa, aldaketa klimatikoa,... Beraz, erabakiak beste maila batean hartu beharko dira. Estatuaren papera gainditua geratu da. Ez, ordea, erabakitze eskubidea.

**Eta, Wert legea, esaterako?**

**J. Bildarratz:** Subirautza egunetik egunera kuestionatuagoa dagoen arren, Estatuak oraindik baditu hainbat elementu, guztiak kaltegarriak izan daitezkeenak.

**A. Mendizabal:** Gure hezkuntza guk gestionatzea nahi dugu. Nik erabaki nahi dut nire bizitza nola antolatu.

**J. Bildarratz:** Ados gaudela uste dut. Erabakitze eskubidea, kontzeptu moderno eta demokratikoa da.

**Eta, zein da jarraitu beharreko bidea?**

**I. Irazabalbeitia:** Gizartearen borondatea irabazi behar dugu. Katalunian egiten ari diren bidea egin behar dugu. Alderdiak baino gizarte zibila ari da Kataluniako prozesua

lideratzen. CIU ez da mugitu Mas-ek eta Puyol-ek egindako gogoeta baten ondorioz, atzetik milaka herritar tiraka izan dituztelako baizik. Prozesuko motor izan dadin, gizartearen egitura egin behar da. Alderdi politikoen, berriz, gizartearen borondatearen interprete eta laguntzaile izan behar dute. Eskozian, hori da gertatzen ez dena ari: Gobernuak bagoaz esan du

baina ez dira gizarte aktibitatez lortzen ari.

**J. Bildarratz:** Britainia Handiak ez du zalantzan jartzen erabakitze eskubidea. Politologoak, orain, Eskoziari ekonomikoki ez zaiola Britainia Handitik bereiztea interesatzen esaten ari dira. Kataluniako prozesuan herritarrak izaten ari diren inplikazioaren erakusle da PSC-k egin duen ibilbidea ere. Katalunian herritarren presioa dago eta hori da guk ere lortu behar duguna. Gizartearen bete betean inplikatzeko, ordea, oraindik lan asko egin beharko dugu.

**A. Mendizabal:** Pauso asko eman beharko dira, oso erabaki garrantzitsua delako hartu beharrekoa. Berotu egin behar da gizartearen, baina alor guztietan. Independentziarekiko nahia herritarrek badutela uste dut. Prestakuntza lana egin beharko da.

**Birziklapena eta AHT. Bruselan eta Madril en zehaztu dituzten irizpideak azalduko?**

**I. Irazabalbeitia:** Birziklapenari dagokionean eta Europako dioenez, ahalik eta gehien birziklatu eta ahalik eta gutxien abiadura Handiko Trenari dagokionean, Europako trenbide sarea paperean diseinatua dago. Krisi egoeran gaude eta, ondorioz, diseinu hori nola geratu den ez dakigu. Nafarroako garraio kontseilariak, esaterako, Nafarroan Castejon-Iruñea arteko izango dela

**Datua**

Europarlamentuko plenoak Estrasburgon izaten diren arren, benetako lana Bruselan egiten da. Ondorioz, hilean astebetetz, diputatuak, laguntzaileak, funtzionarioak,... Bruselatik Estrasburgora joaten dira. Diputatuak parlamentuan galderak luzatzeko minutu bat izaten dute.

esan du. Hori erridikulua da. Iparraldetik Bordelera doan puska egiteko ere urteak beharko dira. Gasteiztik Valladolidera doan zatia ere asko atzeratuko da. Beraz, momentu honetan inbertsio horiek guztiak egiteak merezi al du?

**A. Mendizabal:** Ados nago. Jokinek luzatu zuen galdera Senatuan eta, Gobernutik, momentuz, dirurik ez dagoela erantzun zioten. Frantzia ere geldituta dago,... Dirutza hori gai sozialetan inbertitu beharko litzateke.

**J. Bildarratz:** Atlantikoko eta Mediterraneoko ardatzari dagokionean, Europar erakundeetan diseinua eginda dago. Beraz, ekonomiaren ikuspegitik garrantzi berezia du. Noski, garai zailetan, garai ez zailetan bezainbeste inbertitzea ezinezkoa da, baina jarraitu egin behar da. Momentu honetan hartu beharreko erabakia, zenbateraino inbertitu da.

**Xirimiri**  
Txokolategia  
Xabier Izagirre

**Gosariak eta meriendak**

Tel.: 943 675 223  
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

**ELUSTONDO ELEKTRIZITATEA**

Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak

lurre, 4 (Mustad)  
943 672 300  
Amaroz, 21.  
943 675 513  
20400 TOLOSA

**Zumardi**

SEGURAS  
BILBAO



Aholkularitza  
integrala

Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877

**Martin Eceizabarrena**  
Instalazio erreforma  
Konponketak  
Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 672 445  
Mobila: 608 774 822

jarri zure  
publizitatea  
**Galtzaundi**  
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6  
20400 Tolosa  
publizitatea@galtzaundi.com  
943 655 004  
www.galtzaundi.com

# Ga<sup>△</sup>zeluko haurrak jolas-gune eske

Gazteluko herritar gazteek badute kezka bat: euren seme-alabentzako jolasteko gune baten beharra dute.

Egoerari irtenbidea eman nahiarekin, duela urtebete "Gaztelun jolastokia" ekimena martxan jarri zuten norbanako ezberdinek, tartean Txispiri Gazteluko Guraso Elkarte kideak, Erroizpe Azpiko Kirol eta Udaleko ordezkariak. Diru-laguntzen ezetza jasota, autogestioari heldu diote. Dirua eskuratzeko hurrengo ekimena ekainaren 21ean ospatuko dute; Pirritx, Porrotx eta Marimototsen saioarekin.

Gaztelun 0 eta 14 urte artean 20 bat haur daude. Elkartzeko, ondo pasatzeko, jolasteko eta harremanak lantzeko haur-parkerik ordea ez dute. Gurasoek ezinbestekotzat ikusten dute "jolastokia"ren beharra: "herriari bizia ematen dioten haur eta gaztetxoaren taldea haziz doa herrian. Ondorioz, egun ditugunak eta etorriko direnak kontuan harturik, herriko jolastokiaren eraikuntza ezin dela egoera ekonomikoa- ren joan etorrien menpe utzi uste dugu", azaldu du guraso elkarte ordezkari Eburne Garziak.

Gazteluko Udalak jolas-gunearen eraikuntzaren ardura ezin duela bere gain hartu kontuan hartuta, hamar bat gurasoek lanari ekin diote: "2.000 txartel saldu ditugu jada, 'Nik ere jolastu nahi dut' lelopean kamisetak



atera ditugu eta Leaburu eta Gazteluko azoketan izan gara, bertso-bazkaria ere egin dugu eta Mihiluze telebista saioan ere izan gara", laburbildu du Eburne Garziak.

#### Pirritx, Porrots eta Marimotots

Dirua biltzeko ondorengo ekimena ordea haurren gozamen ere bihurtuko da. Izan ere, datorren ekainaren 21ean Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunak Gaztelura gerturatuko dira euren saio famatuetakoa bat eskaintzera. "Jolastokiaren aldeko ekimena bultzatuko dute. Hitzordu garrantzitsua izango da, dudarik gabe, bai jolastokiari begira baina baita herriari begira ere", izan dira Eburne Garziaren hitzak. Pailazo ikuskizuna arratsaldeko 18.00etan hasi-

ko bada ere, aurretik haurrek festan murgiltzeko jarduerak izango dituzte: txokolatada, aurpegia margotzeko aukera, taberna zerbitzua gurasoei zuzendurik... Emanaldi honetarako sarrerak dagoeneko salgai daude 6 euroren truke Gazteluko Udalean, Tolosako Orbelatubarnan, Ibarrrako Sendin eta Alegia-ko Route 33n.



## "Gaztelun bizi garelako eta Gaztelu bizia nahi dugulako"

Aitziber Barandarain, Eburne Garzia eta Urko Tome "Gaztelun Jolastokia" ekimenaren bultzatzaileetako hiru dira. Ekimenaren ekintzaile gisa hamar bat guraso aritzen badira ere, "ekintza puntualetan laguntza ematen duten" guraso gehiago ere badira Gaztelun. Hala ere, dirua biltzeko ekimenean elkartutako guraso guztiak Gaztelura bizitzera kanpotik etorritakoak dira.

Lehen pausoak duela urtebete eman zituzten, "horrenbeste ume jaiotzen ari zirela ikusita, eta beharra zegoela ikusirik, biltzen hasi ginen", gogoratzen du Aitziber Barandarainek. Herriari heldu eta plazan inor ikusi ez eta, norberak bere etxera alde egiten zuen. Horrek nolabait eragin zuen haur-parke bat jartzearen beharra: "parke batek beti ere aitzaki gehiago ematen dizu elkartzeko. Umei elkartzeko aukera ematen zaie, baina baita herriari begira ere, bestelako abantaila ugariren jabe da. Ai-

umeekin egon nahi dute. Parke eta etortzearen aitzakiarekin gurasoen artean ere harremana sortzen da", azpimarratzen du Eburne Garziak. Kontaketa-ekin jarraituta, zenbait haurrek lbarran egon nahiago dutela, zehaztu du Garziak, bertan haur-parkea dutelako.

Gazteluk duela urte batzuk haur-parkea bazuela gogoratzen du Urko Tomek: "lehen kolonpio eta txirrista bat bazegoen". Obra batzuk medio jolastokia kendu behar izan zuten eta ondoren materialen egoera kaxkarra ikusita ez zen gehiago haur-parkerik muntatu.

Aitziber Barandarainek esandakoari jarraiki, Gazteluko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundira eta Eusko Jaurlaritzara diru-laguntza eskaerak luzatuta erantzungo jaso duenez, autogestioari heltzea erabaki dute. Dagoeneko diru bat bildu dute eta jolas-parkearen aurrekontua esku batean heldurik eta bildutako dirua bestean erdibideko bat topatu beharko dutela azaldu dute hiru gurasoek.

Gazteluk momentuz jolastokirik ez badu ere, bestelako abantaila ugariren jabe da. Ai-

tziberrek, Eburnek eta Urko Gaztelun bizitzeko eskaintzen dien bizitza-kalitatea gorai-patu nahi izan dute. "Jende askok ez du ulertzen hona bizitzera etorri izana, baina ni oso ondo bizi naiz hemen. Orain arte oso ondo bizi izan naiz eta umea jaio denetik, duela oso gutxi, are hobeto. Umearenganako heziketan pentsatzerakoan oso polita iruditzen zait Gaztelun hezteko aukera izatea. Herri lasai bat da, trafikorik ez dago, umeek garai batean bezala, kalean jolastu dezakete, adin ezberdineko umeak elkarrekin aritzen dira, oso aberasgarria da", laburbildu du Eburne Garziak.

"Gaztelun jolastokia" ekimena, Gaztelura kanpotik bizitzera etorritakoak bertakoak direnekin elkartzeko borondatea ere badu: "orain dela gutxi deialdia herri guztiari zabaldu diogu eta espero dezagun erantzuna positiboa jasotzea", azaldu du Eburne Garziak.

Finean, Gaztelu bizi bat lortzea da "Gaztelun Jolastokia"ren nahia: "Gaztelun bizi garelako eta Gaztelu bizia nahi dugulako".

# Denda eta tabernen %80ak baino gehiagok zerbitzua euskaraz eskaintzen du

Galtzaundi Tolosa&Co-rekin elkarlanean Tolosako 37 tabernetan euskaren erabileran eragin asmoz lanketa egin du. Euskarak Tolosako denda eta tabernetan eskaintzen duen balio erantsiaz, 3. sektorearen egoeraz eta beste hainbat gaiez mintzatu dira Idoia Lahidalga –Galtzaundi Euskara Taldea- eta Juanjo Ruiz –Tolosa&Co-.

Naiara Roldán de Aránguiz

Tolosa&Co elkarteak egun ia 300 bazkide ditu. Elkarteak duela urtebete 37 taberna hartu zituen bere gain, eta egun "oso ondo finkatuta" daudela azaldu du Juanjo Ruizek. Galtzaundi Euskara Taldeak aipatu taberna hauekin hasi du bere lanketa, aurrera begira lana dendetara ere hedatuko duela aurreikusitako du.

**Galtzaundi eta Tolosa&Co-ren arteko lankidetzaren sortu da 3. sektorean euskararen erabileran eragin asmoz. Zer behar antzeman dira?**

**Idoia Lahidalga:** Galtzaundiren asmoa Tolosa Euskararen Hiria bihurtzea izanik, arlo ezberdinak landu nahi dira euskara bermaturik eta presente

egon dadin. Lanketa horri hasiera emateko ostalaritza aukeratu da. Idatzizkoen bitartez eta ahozkotasunean bezeroari ematen zaion arreta aztertu nahi izan da, euskaraz zer nolako presentzia duen ezagutzeko, alegia.

**Guztira 37 taberna bisitatu dira. Zer nolako lanketa egin da bertan? Nolako harrera eskaini dute tabernariak?**

**I.L.:** 37 tabernariarekin egon gara eta guztien harrera oso ona izan da. Gure helburuak eta nahiak zeintzuk diren ikusita, ez dute inongo oztoporik jarri gure helburu hori bete zeko garaian. Hainbesteko hutsunea ez dagoela ikusi da, bezeroari eskaintzen zaion zer-

bitzua euskaraz izatea nahiko bermatuta dago. Ehuneko handi batean Tolosako ostalaritzak bezeroari zerbitzua euskaraz eskaintzeko aukera du.

**Paisaia linguistikoak, hala ere, bere aldaerak eskaintzen omen ditu elementuak finkoak edo aldakorrek direnean...**

**I.L.:** Taberna gehienek idatzirik dituzten elementuak hizkuntza bietara jartzeko ohitura eta kontzientzia dute, garrantzitsua ikusten dute bezeroari hizkuntza bietara eskaintzea, hau euskarri finkoei dagokionean. Bestetik, egunerokotasunean aldaketak dauden euskarrietan, batez ere, eguneko menuak eskaintzen dituzten tabernariak informazio hau erdara hutsean idazten dute. Batzuek toki falta argudiatzen dute, beste batzuek ohitura kontuei egiten diete erreferentzia. Ohitura kontuei buelta ematea zailagoa izango da. Euskarri finkoak itzultzerantz bidali daitezke, ez du aparteko lanik suposatzen, baina egunero erdaraz idazteko ohitura daukanak euskaraz idazteko ohitura hartzea zailagoa izango da.

**Tolosako Udalak doako itzulpen zerbitzua badu. 3. sektoreko profesionalak horren jakitun dira?**

**Juanjo Ruiz:** Tolosa&Co elkarteak dokumentu dezente erabiltzen ditu euskaratzerantz.

**I.L.:** Tabernariarekin hitz egin dudanean hala ere, 37 tabernetatik 2k bakarrik ezagutu eta

erabili dutela aitortu dute.

**J.R.:** Askotan denborarekin horrelako baliabideak ahaztu egiten dira. Tankerako informazioa gogoraraztea garrantzitsua da.

**Oraingoan tabernen txanda izan da baina aurrerantzean dendek ere euren lanketa izango al dute? Zer behar antzeman da?**



**I.L.:** Dendetan ikusten diren kartelak kontuan hartuta, adibidez "Oferta. Sábanas a 40 euros", beharra badago.

**J.R.:** Galtzaundi gurekin harremanetan jarri zenetik Tolosa Euskararen Hiria bihurtzea da gure asmoa. Gainera azken PERCO azterketak argi uzten du Tolosako bezeroen artean euskaraz duen garrantzia. Oso positibotzat ikusten da Tolosako merkataritza eta dendariak euskarazko harrera eskaintzea. Bertako merkataritzak eta ostalaritzak eskaintzen duen ba-

loria da euskara. Horregatik, indartu beharreko kontua da. Merkataritza eta tabernariak zerbitzua euskaraz eskaintzeko gai gaitzak erakutsi behar dugu.

**I.L.:** Balio erantsi bat ematen dio euskarak bertako merkataritza eta ostalaritzari. Beste herri batzuek bereizgarri bihurtu daitezke.

**Portzentajeei begira, Tolosa&Co osatzen duten taberna eta dendek zenbatean eskaintzen dute euren zerbitzua euskaraz?**

**J.R.:** Datu zehatza ematea zaila da, baina gehienek bai. Errez gaitzak dute %80a. Ahozkotasun zerbitzua oso zabaldua

## Euskara: tresna eta aukera merkataritzan

Datorren ekainaren 5ean, asteazkenean, Tolosako Kultur Etxean Estitxu Garai Artetxe komunikazio arduradunak "Euskara: tresna eta aukera merkataritzan" hitzaldia eskainiko du. Mintzaldia batik bat, herriko tabernari eta merkatariei zuzendurik dago. Hitzaldia arratsaldeko 20.15ean hasiera emango zaio.

Estitxu Garai Publizitate eta Harreman Publikoetan lizentziatua da. Gaur egun euskara eta publizitatearen arteko harremana ikertzen dihardu Euskal Herriko Unibertsitatean. Horrez gain, hainbat enpresen komunikazio eta marketin

aholkularia da, besteak beste, Euskal Herria Esnea kooperatibarena.

Bere trebakuntza ikusita Tolosan hitzaldi praktikoa eskainiko du. Hitzaldian komunikazio-egoera bakoitzari dagozkion komunikazio adituak; saltzaile eraginkor izateko jarraibideak, alegia. Merkataritza txiki eta ertaineko balio erantsia eskaini behar diote kontsumitzaileari, beste inork eman ezin dezakeen gertuko zerbitzu espezializatua. Bide horretan, euskara tresna eraginkorra izan daiteke, merkataritzarako potentzialtasun handia baitu, bai maila sinbo-

likoan, eta baita maila erreferentzialean ere.

Horregatik, hizkuntzaren erabileran jarriko da arreta, komunikazio-egoera horietan guztietan, erakusleiotik hasi eta dendarien ahozko jardunera arte, euskara egoki erabili eta helburu komertzialak erdiesteko. Halaber, banakako onuzer gain, ez da ahaztu behar paisaia linguistikoa euskalduntzeak herriaren izaera finkatzen laguntzen duela, eta bereizgarri horrek, halaber, abantaila berriak ekar ditzakeela herriko denda eta saltokientzat.



dago, kopurua oso handia da baina bestalde idatzizkoak zailtasun gehiago aurkezten ditu.

**%100era iristeko pausoak emateko prest al daude dendariak eta tabernariak?**

**J.R.:** Norberaren esku dago. Nik euskara euskaltegian ikasi dut. Norberaren lana eta motibazioa izan behar da. Baina, bezeroek esanda, euskarak gure lanari balio erantsia eskaintzen dionez, nik uste motibagarria badela. Bezero gehiago erakartzeko bidea izan daitekeela jakinik, lanketa egitea beharrezkoa da.

**Bezeroen hizkuntza jarrera argia da?**

**J.R.:** Bezeroak argi eta garbi euskaraz egiten du. Gure dendetan erabat euskaraz aritzen da bezeroa.

**Bezeroen jatorriari erreparatuta, eskualdetik kanpoko erosleak antzematen dira?**

**J.R.:** Tolosako bezero kopuru handi bat kanpoko da. Izan ere, kontuan hartu behar da Tolosak 50.000 biztanleentzako ostalaritza eta merkataritza eskaintza duela, hiriak 18.000 biztanle besterik ez dituenean. Inguruko herrietako bezero guztiak euskaldunak dira, eta hori asko antzematen da. Zerbizua eta harrera euskaraz jaso nahi dute.

**Zer gabezi eta balio erantsi ditu Tolosak 3. sektore horri begira?**

**J.R.:** Tolosa&Co elkarte merkataritzagune erraldioen eskaintzaren kontra dago, sistema kapitalista hutsa dela pentsatzen dugu. Merkataritza-kate handi horien jabeak dira honako krisia suertatu dutenak. Horregatik, gure bidea Tolosan, herrian bertan, dauden denda eta tabernetan kontsumitzearen aldeko apustua egiten dugu, bertako produktoreen produktuak kontsumitzearen aldeko apustua. Tolosan auto-sufizienteak izan behar dugu. Eredu jasangarri bat bultzatu behar dugu. Merkataritza-gune handi hauek eragiten duten deskapitalizazioaren kontra gaude. Jarrai dezagun hortaz herriko kaleetan ditugun komertzio eta tabernetan kontsumitzen.

**Azken egunetako datua da 2012 urtean Euskal Herrian 849 denda itxi eta 1.300 lanpostu galdu direla. Tolosaren egoera antzekoa al da?**

**J.R.:** Krisia toki guztietara iritsi da. Tolosara ere iritsi da, egia da hala ere, gehiago kostatu dela hona iristea.



Egoera motel dago momentu honetan eta aurrera begirako proiektzioa ez da ona baina aurrera egin behar da. Azken urteotan itxitako eta irekitako denden kopurua alderatuta, oso orekatuta dago. Lanpostu aldetik ere kopuruak mantendu dira. Orain momenturik baxuenean gaude. Baikorrak izan behar gara, hau ere pasako da eta bidea ondo prestatu behar da datorren horretarako.

**Galtzaundi eta Tolosa&Co elkartearen arteko lankidetzarekin jarraituz, Estixu Garai publikitate adituaren hitzaldia eskainiko da datorren ekainaren 4an: "Euskara: tresna eta aukera merkataritzan". Zer nolako eragina dute tankerako ekimenek 3. sektoreko profesionalengan?**

**J.R.:** Honako hitzaldiak garrantzitsuak dira. Baina, egia esan, askotan asko kostatzen da jendea tankerako ekimene-

tara erakartzea. Gure 300 bazkideei gonbidapena luzatuko diegu.

**I.L.:** Hitzaldiak ahalbidetuko du dendetan euskararen erabilera presenteago egon dadin kontzientzia eragitea. Zuk -Juanjori zuzendurik- kontzientzia hori baduzu, euskaltegira joan zinen, euskara ikasi zenuen, baina beste askok borondate hori ez dute erakusten eta horiei zuzendu nahi da hitzaldia. Hitzaldiak txipa aldatzen lagunduko die, euskara beste puntu batetik ikusten, ez bakarrik lelo gisara, errebindikazio edo festa gisara. Hitzaldiak euskararen praktikotasuna erakutsiko die, beste ikuspuntu bat eskainiko die.

**J.R.:** Seguru baietz! Gune zehatz batean aritzerakoan -taberna edo denda batean- errazagoa da euskaraz mintzatzea. Denda edo taberna batean eduki beharrezko hiztegi eta hizkera mugatua da eta horrek hasieran laguntzen du. ©

## Irakurlearen begietatik




Eneritz Iraola  
Irakurlea

Begiak barrurantz begira jarri ditu. Benetako bata, kristalezkoa bestea. Iragana eta oraina kateatu zaizkio betile artean. Galdera eta galerei erantzuna eman nahian idaztea du sendagai, idaztea arma. Zaila da asmatzen non dagoen errealaren eta irrealaren arteko muga. Are gehiago jakinda, kristalezko begiak ere ez direla kristalezkoak izaten.

## Kristalezko begi bat. Miren Agur Meabe

Miren Agur Meabe (Lekeitio, 1962) sentimenduekin dantzan aritu da *Kristalezko begi bat* (Susa) eleberrian. Itxurak gorde beharrik gabe, modu gordinean hitz eginez hasten da hasieratik, hitzez hitz biluzten joateko. Koaderno pertsonal moldea du testuak, bere buruari egindako aitorten kutsua nortasuna berreraikitze bidean. Galerak hartu ditu hizpide. Maitasun eta begi galera dira ardatzak, baina bestelako galera txikiek ere bere lekua dute istorioan.

Meibi da eleberriko protagonista, emakume konplexua eta kontraesanez betea. Bere buruaren bilaketan ari da, oreka lortu nahian eta idatzi ahala hartuko du sosegua. Tonu asko nahasten dira, aitortpena, ironia, amorrua... Protagonista hurbileko sentitzea lortzen du, egunerokoa gure esku uztearen amuak errazten du agian konplizitatea hori. Barrurantz bidea irekitzen diete eta eleberriaren osotasunean ongi



ataletik behin berriro ixteko. Sartu irtenean ibiliko da irakurlea, barrenetik kanporantz bidean. Horretarako kristalezko begien inguruko azalpenak: klinikoak, praktikoak, historikoak... ematen ditu. Tonu objektibo batean eginak dira eta nabari da idazleak behar zuen arnasaldia direla. Egitura aldeetik segidan datorren pasarteari bidea irekitzen diete eta eleberriaren osotasunean ongi

txertatuak daude. Dena den, irakurlearentzat ez dut uste beti egokiak direnik arnasaldi hauek. Batzuetan eleberriak intentsitatea galdu egiten duela irudituko zait. Hasitako barrurantz bide horretan, bat-bateko oztopo bat jartzen duela idazleak. Pasarte gogoangarriak, *Minaren aldakiak* atala kasu, barrenean mugiarazitako arrari aurrerantz joaten uzten ez zionaren sentipena.

Maisutasunez idatzia, hitzarekin jolas egiteko abilezia nabaria da testuan. Baina bere balio literarioa ez da honetara mugatzen. Idazkuntzari buruzko gogoetak ere tartekatu ditu, aipu literarioak barne. Hainbat esaldi biribil ageri dira, beste idazle askori hartuak. Batzuek begiari egiten diote erreferentzia, bortxaz galdutako adibideei tiraka, beste batzuek pertsonaia egiten dituen gogoetekin dute lotura. Ez dira hauek eleberriaren bereizgarri bakarrak, atal batzuen amaie-

ran oharrak txertatu baititu. Protagonistak garatu gabe utzi dituen ideiak, galderak dira... baina joko bikoitza dute, irakurleen buruetan ere ohar horien oihartzunak behin eta berriz errepikatzea, zer pentsa ematea, baita azken xedea.

Aukera ausarta da Miren Agur Meabek azken eleberrian dakarrena. Barne mundurako bidaia, hitzez hitz egindako biluztea. Irakurleari ere, soinean daramatzen jantziak erantzten lagunduko diona. Estalita dauden gure ispilu, zirrikitu edota begi zuloak zer ezkutatzen duten ikusteko balio dezakeena.

# Hausnarketa erakusketak protagonista Aranburu Jauregian

Bi erakusketek beteko dituzte datozen egunotan Tolosako Aranburu Jauregiko paretak. "Elkarrekiko menpekotasunak" da lehenengoaren izenburua eta "Vich. Kantu sosegatua" bigarrenagoarena. Lehenak etxeko langileak eta zaintzaren krisia du hizpide eta Esther Morenoren koordinaziopean aritutako 9 artisten lanak aurkeztuko dizkio bisitariari bideo, soinu-instalazio, eskultura, argazkia eta irudia erabiliz. Bigarrenak Juan Gabriel Vich artistaren pintura eta eskultura lanak agerian utziko ditu "eresi argitsu bat" kontzeptupean.



Erredakzioa

## Elkarrekiko menpekotasunak

Datorren ekainaren 8a bitartean ikusgai egongo da Aranburu Jauregian "Elkarrekiko menpekotasunak" erakusketa. Tolosaldea Garazzeneko Migrazio Sailak antolatutako erakusketa honek egungo feminismoan barnebiltutako premia egoerari erantzuna eman nahi dio: zainketa, merkatuaren gainetik jartzea, alegia. Zainketa ezinbestekoa izateaz batera ez da baloratzen. Onuradunak -gizonezkoak, enpresak, estatua- alde batera uzten dituzten bitartean, emakumeek euren kargu egiten dira, belau-naldiz-belau-naldiz emakumeen artean transferentzia sortuz edo kanpo emakumezko langileak kontratatuz.

Honela, elkarmenpekotasun sare bat sortzen da: gizonen eta emakumeen artean, emakume batzuen eta besteen artean (gizarte-mailak, etniak...). "Elkarrekiko menpekotasunak" erakusketak Elena Frajen, Yolanda Herranzen, Louisa Holeczen, Natalia Iguñizen, Daniela Ortizen, Martha Roslerren, Dora Salazarren, Etxeko Lurraldearen eta Eulalia Valldoseraren lanen bitartez aipatu egoeraren salaketa egitea bilatzen du.

Elena Fraj zaragozarrak "Mémoires d'unes serveuses" lanean frankismo garaian etxeko zerbitzari gisa aritutako emakumeei egun egindako elkarrizketak, garai horietako estereotipoekin alderatuko ditu. Egilearen asma

60-70. hamarkadetan emakume anonimo hauek ahalbidetu zuten garapen ekonomikoa azpimarratzea da. Yolanda Herranz barakaldarrak "Buru eta bihotz: atsekabeak, nahigabeak eta saminak" soinu-instalazioa aurkeztu du erakusketaren baitan. Zaintzaileak artistaren amari artistak berak idatzitako gutuna irakurtzen dio, larritasun tresna.

Londresen jaiotako Louisa Holeczen "Home" lana ikusgai egongo da Aranburun. Eskultura bat antzemango du kasu honetan bisitariak, mantalez osatutako etxea, hain zuzen ere. Kanpoa eta barnea dira etxe honetan ezberdindu beharrekoak. Etxearen hauskortasunaz mintzatuko da artista aipatu sinboloa erabilia.

Bestalde, Natalia Iguñiz perurtarrak "Bestea" izenburuarekin argazkiak aurkeztu ditu. Langile eta enplegu-emaile bikoteek osatutako argazkiak dira kasu honetan publikoak ikusiko dituenak.

Cuzcoko Daniela Ortizek argazkigintza lana erakutsiko du: "97 etxeko langile". Facebook sare sozialetik ateratako argazkiak dira. Argazkietan Peruko goi-mailako pertsonak ageri dira, egunerokotasunean, foku nagusitik kanpo etxeko langileak ikus daitezkeela, gizarte-botearen sinbolo gisa.

New Yorkeko Martha Roslerren "Tijuana Maid" lana berreskuratu da erakusketa kolektibo honetarako. Tijuana etxeko langileen lan-baldintzak jasotzen ditu lan honek. Postalaren artea erabiliz, lehen pertsona pairatutako

egoerak irakurgai daude. Dora Salazar altsasuarrak "Kobre harizko irudiak, ama eta alaba (elkarrekiko zaintza)" aurkeztu du. Tamaina errealeko bi irudi, ama eta alaba irudikatzen dituztenak; amak alaba orain arte zaindu du eta zaintzen jarraituko du, eta alabak ama zaintzeko desioa du.

Etxeko Lurraldea taldeak "Amaitu da esklabotza!" lanean Madrilen 2010eko martxoaren 28an egindako etxeko langileen eskubideen aldeko manifestazioko argazkiak jasotzen ditu. Eta azkenik Eulalia Valldosera katalanaren "Elkarrekiko menpekotasuna" lana ageri da, erakusketa osoari izenburu ematen diona. Artistak etxeko langileari, "paperik gabeko" emakume ukraniarri, lanean bere lekuan jarduteko eskatu dio, egoera horren inguruko bideo-ekintza da honako lana.

## Vich. Kantu sosegatua

Juan Gabriel Vich donostiarraren "Kantu sosegatua" erakusketa ikusgai dago Tolosako Aranburu Jauregian ekainaren 15a bitartean. Pintura eta eskultura erakusketa da Vichek proposatzen duena. Sakontasun handiko erakusketa, egileak berak horrela aitortuta: "saiatzen naiz adierazi nahi dudana horren esentziara iristen" eta Vich adierazi nahiaren baitan "sentimenduaren eta min sosegatu

eta eutsiaren karga handiak" kokatzen dira.

Julia Otxoa idazleak "poetika mistikotzat" jo du Vichen "Kantu sosegatua" erakusketa. Are gehiago, zuri-beltzeko geometria boteretsua da artistak plazaratzen duena Julia Otxoaren esanetan. Lanak gelditasun eta transzendentziara jotzen du, espazio espirituala sortuz. Margoak, azken batean, hausnartze sakonera bideratzen du bisitariari.

Ricardo Ugarte eskultoreak "siltasunaren espazioak" bezala definitu nahi izan du "Kantu sosegatua" erakusketa. Zen unibertsotik gertu dagoen obra bezala ikusten du eskultoreak. Kolorearen garrantziaz ere mintzatu da Ricardo Ugarte Vichen lanaz: "kolore elkarrizketa bat ezartzen du, beltzaren eta beltza inguratzen duen zuriaren artean, grisen sotiltasunak grabatuaren mundura hurbiltzen gaitu".

Javier Mina idazle eta margolariaren ustetan, Vichen marrazki eta oihalei lasaitasuna darie, lanaren izenburuari men eginez. "eresi argitsu bat" bezala ere definitu du egile donostiarraren lana.

Adituen iritziak entzunda, orain publikoaren txanda da, Aranburu Jauregiak datozen egunotan zabalik dituen erakusketek hausnartzeko parada, alegia.



**Saldias Miguel**

**CORREDURIA DE SEGUROS ASEGURUETAKO ARTEKARITZA**  
N. D.G.S. J.1759

Bizi-asegurua  
Kotxe-asegurua  
Istripuak  
Gaisolasunak  
Ospitalizazioak  
Subsidioak  
Lan-istripuak  
Enpresa txiki eta ertainak  
Erantzukizun zibila  
Etxe-asegurua  
Denda-asegurua  
Erretiroak  
Inbertsio fondoak

SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea  
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462  
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
www.saldias-miguel.com

01001001  
00111100  
00111100  
00111100

**Tolosa Bit**  
Informazioa Zerbaitak

Oraindik ez da inportatutako  
Egilea eta partikularren  
Mantentzeak

Oria kalea, 14-behea  
Tolosa - Tel.: 943 676 156  
Faxa: 943 016 857  
tolosabit@facilnet.net  
www.tolosabit.es

[www.galtzaundi.com](http://www.galtzaundi.com)

**errrotatxo  
okindegia**

Andia kalea, 3      Amaro, 9-A  
Tel.: 943 655 492      Tel.: 943 671 038

irakurri  
entzun  
Ikusi

Versus  
Karlos Linazasoro

99 idazki, 99 gutun, 99 parabola, apotegma, aporia edo poema: estilo-ariketa sorta bat ondu du Karlos Linazasorok, naufragio bat asmatu sujet eta gaitzat, eta horren inguruko bariazioak sortu gero, doinu berberaren bihurtze, luzatze, luzitze eta adarjotzea balitz bezala.

Bilgua - Pirineotako magaletan dantzan  
Aiko

XX.mendearen hastapeneko erromeria tradizionalaren estiloan grabaturik, aire zaharkituak belarri modernoentzat egokituak, hainbat dantza estiloko doinuak jasotzen ditu lanak, jauziak, ingurutxoak, multidantzak, jotak, valsak, mazurkak, txotisak...

Guk  
Nuria Vilalta

Dokumentala. Argentinara iritsi eta euskal nortasuna bizi-bizirik duten euskaldunekin eta haien ondorengoekin egin du topo Nuria Vilalta bilbotarrak. Uruguaiako euskal diaspora ere eza-gutu du. Pixkanaka, ia konturatu gabe, euren testigantzen indarrak elkarrizketak grabatu eta dokumental bat egitera eramandu.

Maiatzaren 24tik ekainaren 7ra bitarteko  
**hitzordduak**

**Ahora Astea**

**Maiatzak 24, ostirala.** Sardina Jana (20.00-23.00, Zerakusia), Txaranga Kalejira (21.30 Zerkausitik Sakramentinoetara), Bonberenea Txaranga eta lagunak kontzertua (22.00 Lasakorain ikastola). Tolosa  
**Maiatzak 25, larunbata.** Tolosa Kantari & Dultzaineroak (12.00-13.30 Alde Zaharretik), Ahora! Txapin Festa (12.30 Baltsen jaitsiera, 14.00 Bazkaria, 16.00 Bertso musikatuak, 16.30 Ahora! Mosaikoa, 17.00 Jolasak, 18.30 Kalejira, 19.30 Jolasak, 20.30-23.00 Sardina Jana, 21.30 Zesuma Taldea). Tolosa

**Ipuin Txokoa**

**Maiatzak 24, ostirala.** 3-6 urte bitarteko haurrentzat eta euren gurasoentzat. Kontalaria: Miriam Mendoza. Tolosa, Errota Haur Liburutegia. 18.00

**Antzerki Poltsiko Lehiaketa**

**Maiatzak 24, ostirala.** 7. Asvinenea Poltsiko Antzerki Lehiaketa Express. Finala. Sarrera: 10 euro. Aduna, Asvinenea. 22.00

**Erakusketa**

**Euskal Jantzien Erakusketa.** Maiatzaren 24a bitartean. Alurr Dantza Taldeak egin dituen azken hiru ikuskizunetako jantziak: Sua, Oinazez eta Izanak Dirau, 1512. Ramon Gartzia azken urteetan egin-dako arropak. Ibarra, Kultur Etxea  
**Elkarrekiko menpekotasunak.** Ekainaren 7a bitartean. Tolosa, Aranburu Jauregia.

**Birziklapen Bira**

**Tolosaldeko Mankomunitateak antolatuta**  
Maiatzak 24, ostirala. Tolosa, Trianguloa  
Maiatzak 27, astelehena. Leaburu  
Maiatzak 28, asteartea. Berastegi  
Maiatzak 29, asteazkena. Altzo

**Hitzaldia**

**Emozio kudeaketa.** Maiatzak 23, 24, 30 eta 31. Berastegi  
**Zaintzea, zaintzaileak eta estrak.** Maiatzak 30, osteguna. Jabekuntza Eskola. Tolosa, Aranburu Jauregia. 19.00  
**Norena da dirua?** Maiatzak 31, ostirala. Tolosa, Kultur Etxea. 16.00

**Maiatza Kulturala. Irura**

**Mus Txapelketa.** Maiatzak 24, ostirala. Taberna eta elkarten arteko mus txapelketa finala. Irura, Trinketea. 22.00  
**Musika zuzenean.** Tom & Wats. Maiatzak 24, ostirala. Irura, Zaharretxe taberna. 23.00  
**Antzerki eskolako ikasleen emanaldia.** Maiatzak 29, asteazkena. Irura, Kulturunea. 17.30  
**Gaixotasun mentala duten familiarrentzako ikastaroa.** Ekainak 6, osteguna. Tolosa, Kultur Etxea. 18.30  
**Zaintzea asko kostatzen da!** Intsumisioa nahitaezkoa zaintzaileei! Ekainak 6, osteguna. Tolosa, Aranburu Jauregia. 21.00

**Pailazo ikuskizuna**

**Hipo eta Tomax.** Maiatzak 25, larunbata. Minbiziaren aurkako elkarteak antolatua. Antzепенa minbiziaren prebenitzeko pausoen inguruan izango da. Sarreraren prezioa: 3 €. Tolosa, Leidor. 17.00

**Antzerkia**

**Udaberri.** Ikasturte amaierako emanaldia. Maiatzak 26, igandea. Tolosa, Leidor. 12.00

**Maiatza Gorria**

**Venezuela, kapitalismoa kolokan.** Maiatzak 27, astelehena. Komite Internazionalistak erakundearen eskutik. Tolosa, Otsabi Auzo Elkarte. 19.00



**Bertso Emanaldia**

**33. Eskolarteko Bertsolari Txapelketako Finala.** Gipuzkoako ikasleek parte hartuko dute, 10-18 urte bitartekoak. KMK'13 ekimena. Antolatzailea: Euskal Herriko Ikastolak elkarte. Tolosa, Leidor. 16.00

**Azoka**

**Artisautza Azoka.** Maiatzak 31, ostirala. Tolosa. Lur Kolektiboak antolatuta

**Lore eta landare azoka.** Ekainak 1, larunbata. Tolosa

**Festa**

**Uzturpe Ikastolaren Eguna.** Ekainak 1, larunbata. Ibarra, Uzturpe Ikastola.

**Ikasmina: herriz-herri proiektuak diruzlagundua ikasmina.tolosaldea.com**

"Ez zaitez geratu... Aukeratu zure etorkizuna!" Jardunaldia Langabezia dauden gazte titulatuak zuzendua.  
Ekainak 6.  
09.00-14.30

"Prestakuntzarako bide guztiak" jardunaldia  
Orientazioa, informazioa eta aholkularitza saioak, bakarka nahiz taldeka.  
Ekainak 11.  
Bi talde: 10.00-12.00 / 16.00-18.00

**Hezkuntzak diruzlagundua**

Erdi eta goi mailako heziketa zirkloak.  
2.000 ordu.  
Aurrematrikula epea: maiatzaren 27tik ekainaren 7ra.

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzugu? Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora.  
Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa  
Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678



idazkaritza@tolosaldea.com  
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com  
www.ikastn.com



**Goardiako farmaziak**

<b>Ostirala, 24</b> Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	<b>Asteazkena, 29</b> Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	<b>Astelehena, 3</b> Morant R. (Zabalarreta 1) Tolosa
<b>Larunbata, 25</b> Azpiroz L. (Amaroz, 9) Tolosa	<b>Osteguna, 30</b> Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	<b>Asteartea, 4</b> Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra
<b>Igandea, 26</b> Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	<b>Ostirala, 31</b> Lejeune, Leyre (Euskal Herria, 46) Ibarra	<b>Asteazkena, 5</b> Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa
<b>Astelehena, 27</b> Olarreaga I. (Korreo, 2) Tolosa	<b>Larunbata, 1</b> Olarreaga M. (Martin J. Iraola 10) Tolosa	<b>Osteguna, 6</b> Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa
<b>Asteartea, 28</b> Morant R. (Zabalarreta 1) Tolosa	<b>Igandea, 2</b> Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	<b>Ostirala, 7</b> Morant R. (Zabalarreta 1) Tolosa

**Telefono interesgarriak**

Alegia-Amezeta-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernalde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurreamendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	Ertzantza	943 675 320
Medikua	Tolosa Gasa	
Irura	Lizartza	
Osasun zentroa	Medikua	943 682 077
Tolosa	Orendain	
Anbulatorioa, larriald.	Medikua	943 655 595
San Esteban, hitzordua	Orexa	
	Medikua	943 682 228

jarri zure  
publizitatea  
**Galtzaundi**  
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6  
20400 Tolosa  
publizitatea@galtzaundi.com  
943 655 004  
www.galtzaundi.com

**NISSAN**

**SANTA LUZIA GARAJEA**

Grua zerbitzua  
24 orduetan

943 653 491  
943 653 874  
943 653 985  
943 806 020  
Santa Luzia, 1-TOLOSA

**SANZ**  
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74  
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,  
7 behea  
20400 Tolosa

## Muxutruk

### Lana

• Ingeleseko eta frantseseko klaseak, bakar-ka edo taldeka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. 664 160 268

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 688 642 137

• Etxeko lanak egiteko lan bila. Ana Mari Atxaga. 634 404 452

• Klase partikularrak. Maila guztiak, talde txiki-txiki. Esperientzia. (Kristina). 652 739808

• Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo ume zaintzaile gisa aritzeko. 602 684094 (Amezketza)

• Ordenagailuak konpontzen dira. Sistema eragileen instalazioa, birusak, datu berreskuratzeak, hardware eta software arazoak. Prezio egokian. 622217736.

### Etxebizitza

• 90m<sup>2</sup>-ko pisua salgai Anoetako solkorre kalean. Egongela handia, hiru logela, sukalde, komuna, trasteroa, ganbara ta bi balkoi. 130.000€ . 688 887 178

### Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

• Villabonan ileapaindegia salgai edo alokairuan. Sartzeko prest. 630 099092

### Erosketa

• Teutonia markako bigarren eskuo maxi coscia erosiko nuke. Interesatuak 635708540 zenbakira deitu mesedez. Mila esker



### aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Lasaitasunez hausnartuz gero zure haserrearen iturria topatuko duzu. Errua, kasu honetan familiak du. Eztabaida berrietan murgildu gabe kontuak argitu beharko zenituzke. Meditazioak lan horretan lagunduko dizu.



### taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Hezkuntzak erabateko garrantzia hartuko du datozen egunotan, ezagutza berriak ezinbestekoak bihurtuko dira. Maitasun arloan, hausturak iritsi daitezke. Kontuz hasiberriak diren lan harremanekin.



### gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Bikotearekiko bakea bueltan da. Une zoragarria biziko duzu. Ilargiaren eragina oso presente izango duzu. Aldarte txarra kontrolpean izan beharko zenuke, zenbait gauzetan ez zenuke gehiegi pentsatu behar.



### cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Laneko arazoak lanean utzi. Jaki naturalak hartu eta osasuntsu mantendu. Estresak bere eragina izango du baina sorpresa baikorren bat ere jasoko duzu. Atzeratutako ametsengan pentsatzeko unea.



### leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Jan gehiegi izango duzu datozen egunotan. Ahaleginak bere fruituak ekarriko ditu. Belarriak tente mantendu, inguruan plan berriak egosten ari dira eta. Ingurukoen eskaerak entzuteko unea iritsi da.



### virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Maitasuna ate joka duzu. Bihotzak eskaintako momentu berezi honetaz probestu zaitez. Kalterako esandako iruzkinei kasurik ez egin, bestela benetako etsai bihurtuko dira. Konkistarako ahalmenak agerian utziko dituzu.



### libra

Irailak 23-Urriak 22

Egun baikorrak orokorrean, hala ere, tentuz ibili suarekin. Inork ezin zaitu behartu maitekorragoa izaten, baina ahaleginak ordaina izan dezake. Bide zuzena aukeratzea zure esku dago.



### scorpio

Urriak 23-Azaroak 22

Tentuz ibili jaten duzunarekin. Loditasunerako joera. Ingurukoekin komunikazioa zaila egingo zaizu datozen egunotan. Atzean utzi nahi dituzun ohitura horiek dute guztiaren errua. Datozen egunotan benetako aldaketa proposatu beharko zenioke zure buruari.



### sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Eguneroko gatazkei muga jarri iezaezu. Erabaki garrantzitsuak hartu behar izanez gero guztia balantza batean jarri. Etorkizuna arretaz landu ezazu. Zure kontu lan egiten baduzu, egun zailak datoz, atzeratutako ordainketei aurre egin beharko diezu eta.



### capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Duzun bihotz handi hori gertukoek ikusi beharko lukete, batik bat bikoteak eta lagunak. Laneko arazoak etxera eramaten jarraituz gero, harremanak hoztu egingo dira. Bikoteari denbora gehiago eskaini beharko zenioke.



### aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Arteak edertasunarekiko desioa bueltatuko duzu. Inguruari erreparatu, errealtatearekin konektatzeko beta izango duzu. Inspirazioa bidelagun izango duzu. Osasuntsu janez gero, arazo asko ekidin egingo dituzu.



### piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Bilakaera desioek aldeko bidea hartuko dute. Eskaintza probetxugarriak jasoko dituzu. Dokumentu garrantzitsuak sinatzeko uneak izango dira. Bestalde, jokoak ez dizu zorte onik ekarriko.

# Horoskopoa

Maiatzaren 24tik ekainaren 7ra arteko aurreikuspena



## JOXE MARI IPARRAGIRRE BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA



### Erizain laguntzailea

Erdi Mailako Heziketa Zikloa. Osasun familia. A-D ereduak

**Aurrematrikula:** Maiatzaren 27tik ekainaren 7ra (biak barne)

**Matrikula egiteko epea:** Uztailaren 8tik 12ra (biak barne)

### Lanbide etorkizunak:

- Osakidetzako edozein ospitaletan
- Osakidetzako anbulategietako kontsultetan
- Ospitale pribatuetan
- Zaharren egoitzetan
- Eguneko zentruetan
- Kontsulta pribatuetan
- Hortz kliniketan
- Etxez etxeko gaixoen zaintzan
- Adimen urrituentzako zentruetan
- Bainuetxeetan

STA. BARBARA BIDEA, Z/G – 20700 URRETXU (GIPUZKOA)

TEL./FAXA: 943721403 / 943721413

WWW.JMIPARRAGIRRE.NET/WEB - 012286AA@HEZKUNTZA.NET



Komikia: Joseba Antxustegietxarte

KALITATEA ETA PREZIOA EZUSTEKORIK GABE

# 2X1

## PNEUMATIKOETAN

www.renault.es/posventa

### RENAULT SERVICIOS

ZURE RENAULTARENTZAT, AUKERATU RENAULT

Eskaintzak hilebetea bukatu arte balio du; Michelin markako bakarrak; galdetu zure hartzaileari stockean zer neurri edo modelo dauden. Ezin zaio indarrean dagoen beste edozein eskaintza edo sustapen gehitu.


Renault partner **EIF**

**AUTOBERRI TOLOSA ANOETA POLIGONOA Z.G. ANOETA (TOLOSA)**

ingeleraz  
Jere bai!



**TOLOSALDEA**  
LANBIDE HEZIKETA INSTITUTUA



# eskaintza akademikoa

arautua **goi mailako zikloak**  
(euskaraz)

- Sareko informatika sistemen administrazioa
- Administrazio eta finantzak
- Automatizazio eta robotika industriala
- Metal eraikuntzak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Instalazio termikoak eta fluidodunak mantentzea

**erdi mailako zikloak**  
(euskaraz)

- Soldadura eta galdaragintza
- Mekanizazioa
- Instalazio elektriko eta automatikoak
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak

Tel: 943 651 147  
Fax: 943 651 856

idazkaritza@tolosaldea.com  
www.tolosaldea.com

**aurrematrikula**

Maiatzaren 27tik  
Ekainaren 7ra

**matrikula  
epea**

Uztailaren 8tik 12ra

**zure etorkizuna prestatzen laguntzen dizugu!**

- Aliantzak eta lankidetzak lantegi eta erakundeekin.
- Lan-Poltsa eta ikasle-ohien jarraipena.
- Praktika atzerrian (ERASMUS)
- Alternantzia formakuntza. HEZIBI

[www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)

